

Wikipedian plagioak saihesten

Wikipediako irizpideek debekatu egiten dute iturri gehienetatik hurbiletik parafraseatzea edota kopiatu eta itsastea. Hona hemen zer jakin behar duzun arazoetan ez sartzeko.

Desegokia da inoren hitzak hartzea eta zeureak balira bezala erabiltzea; horri plagioa deritzo, eta unibertsi-tate gehienetan ohore lege akademikoa urratzea da plagioa egitea. Wikipedian ere debeku da plagioa, eta lankidetzan egiten denez (artikuluak hainbat erabiltzailek idazten, berrikusten eta berrantolatzen dituzte), arreta berezia jarri behar duzu plagiorik ez sartzeko hurbilegitik parafraseatuz, hau da, idazten dituzun hitzetan iturriaren hitzei hurbilegitik jarraituz.

Errespetatu ezazu boluntarioen denbora

Kontuan har itzazu Wikipedia baliabide bikaina izan dadin boluntarioek sartzten dituzten milaka orduak, eta jar ezazu arreta berezia boluntarioei denbora gehiago sartu behar izatea ekarriko liekeen hutsegiterik ez egiteko. Wikilariak, oro har, ikasleren batek plagioa egiten duela ikusten badute, irakasleari jakinaraziko diote, eta ikaslearen ekarpenen zati bat edo guzti-guztiak ezabatuko dituzte.

Aipua

Aipu bloke luzeak Wikipedian bakanagoak izaten dira idazketa akademikoan baino. Egizu ahalegina, egilearen lan originaletik ideia nagusiak laburbildu eta parafraseatzeko, iturria aipatuta. Jatorrizko testuaren zatiren bat garrantzitsua den kasuetan, aipu txiki bat erabil daiteke.

Hurbiletik parafraseatzea

Ikasle asko nahi gabe arazoetan sartzten dira, hurbiletik parafraseatuz, lehenengo aldiz Wikipedian idazten saiatzen direnean; izan ere, ohituta daude aipu luzeak erabiltzera. Plagiari gabe parafraseatzeko trebetasuna lortzeko, praktika behar da. Jatorrizko testua zeure aurrean baldin baduzu, erraz gerta dakizuke jatorrizko egilearen egitura eta hitz hautapena kopiatzea, nahi gabe bada ere. Baina **jatorrizko iturritik hitzak, egitura edo esaldiak kopiatze horrek (baita jatorrizko iturria aipatzen bada ere) urratu egiten ditu Wikipediaren egile eskubideen arauak, eta plagio mota bat da**. Kontziente izan beharko duzu nola idazten ari zaren, ziurtatzeko ez zarela nahi gabe jarraibideetatik aldentzen ari.

Hurbiletik parafraseatzearen adibide bat

Jatorrizko testua: *Eguraldi iragarpenak euria zeterrela zioelako, ligak erabaki zuen partidaren jokalekua estalpeko instalazio batera aldatzea.*

Hurbiletik parafraseatutako testu bat, Wikipedian onartezina: *Ligak partidaren jokalekua estalpeko instalazio batera aldatu zuen, eguraldi iragarpenak euria zeterrela baitzioen.*

Testu onargarria: *Euria iragarrita zegoenez, ligak estalpera aldatu zuen partida.*

Iradokizunak eta trikimailuak

- Zure proba orrian dagoen edukiak ere Wikipediako arauak bete behar ditu. Beraz, ez kopiatu eta itsatsi erabiltzen ari zaren iturrietako informazioa zure proba orrira.
- Hasteko, har itzazu funtsezko kontzeptuen oharrak, eta ez esaldiak, erabiltzen ari zaren iturrietatik; eta adieraz ezazu kontzeptu bakoitza nondik datorren. Idatz ezazu zirriborroa zure oharretatik,

eta ez jatorrizko iturritik. Horrela, ez dituzu nahi gabe jatorrizko egilearen egitura edo esapideak kopiatuko.

- Zenbat eta iturri gehiago erabiltzen dituzun, orduan eta hobeto ulertuko duzu gaia, eta errazago parafraseatu eta laburbilduko duzu zeure hitzetan.
- Zure zirriborroa bukatu duzunean, irakur ezazu ondoan iturriak dituzula. Egiazta ezazu idatzi duzun guztia erabili dituzun iturrien estilotik nabarmen ezberdina dela.